



Euskadiko Batel Txapelketa ere, TAKeko neskentzat

TOLOSALDEA ▶ Jubenil-senior mailakoek irabazi dute, Sokoan, estropada estuan; datorren asteburuan Espainiako Txapelketan lehiatuko dira, Sestaon ▶ 3



TAKeko jubenil-senior mailako nesken taldea, banderarekin. HITZA

J. ASTIBIA



425 lagunek hartu dute parte herri krosean

LEITZA ▶ Maitane Melerok eta Rafa Maritxalarrek irabazi dute seniorretan ▶ 7

ADUNA ▶

Etxebizitza tasatuen zozketa ▶ 4

OREXA ▶

Lagun bat hil da auto istripuan, Intxaurpe auzoan

Igandean jazo zen ezbeharrak; beste hiru lagun zauriturik daude ▶ 6

TOLOSA ▶

Lankidetzak hitzarmena berritu dute Udalak eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak

Industria, komunikabide, euskara eta administrazioetako eragileak bildu dira ▶ 2

POLITIKA ▶

15 egunez atzeratu dute
18/98 epaiketa

Jokin Gorostidi tolosarraren egoera dela eta, bertan behera geratu da oraingoz auzia

E. EZEIZA

Jokin Gorostidi tolosarraren gaixotasun larria dela eta, bertan behera geratu da oraingoz 18/98 epaiketa. Oraindik ere, Donostiako Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean jarraitzen du Gorostidik, eta osasun zentrukoek agertu zuten, oraindik ez dute informazio gehiago emango haren egoeraren inguruan. Herri Batasuneko Mahai Nazionalako kide ohiari bihotzekoak eman zion joan den ostiralean; hori dela eta, ordutik, arnasteko makinari lotuta, koma egoeran aurkitzen da.

Auzipetuen defentsaren abokatuak, Iñigo Iruinek, epaiketa geldiarazteko eskatu zuen atzo, tolosarraren sendatze prozesuari buruzko datuak jakin arte. Hasieran, David Soto akusatua deklaratu zuen, eta ondoren, epaiketa maiatzaren 8rarte atzeratua geratu zen.

Atzoko jardunaldia hasi bezain laster, Iruinek, Xaki ataleko auzipetuen egoeraren berri jakin artean, epaiketa atzeratzeko eskatu zuen. Defentsako abokatuaren esanetan, «nahiz eta Gorostidi sendatzeko aukera gutxi egon, medikuek, garapenaren berri jakiteko, 78 orduko epea jarri zuten. Hori dela eta, epaiketatik kanpo geratu den edo ez erabaki aurretik, itxaropena gordez, epaiketa 2 edo 3 egun atzeratzeko eskatu zuen Iruinek. Hala, auzitegiak eskaera aztertzeko etenaldi bat agindu zuen. Eta honen ondoren, nahiz eta Jokin ez egon, auziarekin jarraitzeko agindu zuten.

Erabakia hartu aurretik, baina, David Soto deitu zuen deklaratzera Angela Murillo epaimahai buruak. Sotoren agerraldiarekin amaitu ziren auzipetuen deklarazioak eta gero lekukoak datoz.

Burgosko prozesuan (1970) bi heriotza zigor ezarri zizkion Jokin Gorostidiri. Mahai Nazionalako kide izateaz gain, 1980. urtean legebiltzarkide ere izan zen.

Burgosko prozesuan (1970) bi heriotza zigor ezarri zizkion Jokin Gorostidiri. Mahai Nazionalako kide izateaz gain, 1980. urtean legebiltzarkide ere izan zen.

Osasun egoera

Iñigo Iruin abokatuarekin Donostian auzi saioa prestatzeki etxerako bidean zen Gorostidi ondoezak jo zuenean. Itziar Aizpurua bikotekidearekin trenean zihola izan zuen bihotzekoa Herri Batasuneko nahaikide ohiak. Aizpuruari medikuek azaldu ziotenez, Gorostidiri bihotza gelditu egin zitzaion miokardioko infartu ikutu baten ondorioz.

Duela 13 urte 55 egunez koman egon izanak utzitako osasun arazo larriak ditu Herri Batasunako kide tolosarrak. Hori dela eta, 18/98 auziaren epaiketara egunero ez joateko eskaera egin zuen haren defentsak. Deklaratzeko txanda iritsi arte ez zuela aretora agertu beharko ebatzi zuen epaimahaiak.

EUSKARA ▶

Kontseiluaren eta
Udalaren arteko
hitzarmena, berrituta

Eskualdeko hiru eragilek sinatu dute: industriak, komunikabideak eta euskara eta administrazio ekintzaileak



Atzo, Tolosako Udaletxean egindako bilkuren sinaketaren momentua. ESTI EZEIZA

ESTI EZEIZA

Atzo goizean, Kontseiluak eta Tolosako Udalak lankidetzaz hitzarmena berritu zuten. Bertan, hiru eragile ezberdinek hartu zuten parte. Alde batetik, enpresa munduko Jose Mari Sanchez SAM lantegiko ordezkariek, eta Jose Ignacio Amondarain Artetxe lantegikoak. Bestetik, han zeuden ere, komunikabideen arloko Jon Miranda, Txolarre Irratia ordezkatuz, eta Nora Olan, Galtzaundi Kultur Elkartearen ordezkariek. Eta azkenik, Euskara eta administrazio ekintzaileak: Onintza Lasa Tolosako Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, Jokin Bildarratz alkatea, eta Xabier Mendiguren Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko Idazkari Nagusia.

Agiri honen bidez, urtean zehar euskararen alde elkarlanean jarraituko dutela adostu dute Jokin Bildarratzek eta Xabier Mendigurenek. Azken honen azaldu zenez, «gure poza adierazi nahi dut Tolosaldean hitzarmen honen bidez Bai Euskarari Akordioa eta konpromisoaren prozesua dinamizatzeko jarraitzeko aukera izango dugulako». Duela bost urtetatik hona, akordio eta konpromiso prozesua gauzatzen ari da, Kontseilua Tolosaldean, Udalarekin eta euskalgintzarekin ba-

JOKIN BILDARRATZ
TOLOSAGO ALKATEA

«Eraginkor izateko, ezberdintasun politikoak alde batera utzi eta bateraturik joan behar dugu»

tera. Tolosako atzoko bilkuran, alkateak eskualdeko hainbat sektoreren ahalegina azpimarratu zuen, herriak euskaraz funtzionatzeko behar dituen baliabideak izan ditzan. «Bide horretan, gizarte eragileen inplikazioa beharrezkoa da, baina instituzioek ere egin behar garrantzitsua daukagu», azaldu zuen Bildarratzek. Honekin batera, erreflexio bat ere agertu zuen: «Euskararen normalizazioan ez dago lekurik ez zati-ketarako ez eta fiabarduretako ere. Eraginkor izateko, ezberdintasun politikoak alde batera utzi eta bateraturik joan behar dugu».

Onintza Lasak norberak bere buruari egin beharreko galdere bat proposatu zuen: «Euskararen alde nahikoa egingen al dugu?». Mahaikideen aldetik, baiezkora erantzun zuen, hau da, dirua eman bakarrik ez, baizik eta euskararen aldeko apustu finkoa eta konpromisoa hartzen dutela ziurtatu

zuen. Nabarmendu zuen, halaber, «izenpetetze hutsean ez duela geratu zehar sinadura honek». Honela, Kontseiluari eskatu zion «administrazioari presioa egiten jarraitzeko», honek lanean jarrai dezan. Bestetik, Jose Mari Sanchez Finantza arduraduna zoriondu zuen orain dela urte batzuk SAM enpresak euskararen normalizazioa bultzatzeko hartutako konpromisoagatik. Izan ere, Lasaren esanetan, «gainontzeko eskal enpresekiko eredugarri bilakatu da». Orain, Arretxe lantegiak bide bera jarraitzen du, eta euskararen erabilera sustatzen dihardute.

Sanchezen esanetan, hitzarmena sinatu, eta hasieran ueste zuten arazoak izango zituztela. Baina, bost urteren ondoren, baieztatuta dute «onuragarria» izan dela, besteak beste, lantegiko pertsonalaren arteko erlazioetarako.

Komunikabideei dagokionean, berriz, Galtzaundiko ordezkarikari Nora Olanok onartu zuen dituzten baliabide urriak direla eta, «ezinbestekoa» dela instituzioen laguntza. Hala, Txolarreko Jon Mirandak ere gauza bera agertu zuten, eta udalarekin egin beharreko lana azpimarratu zuen, «euskarazko komunikabideak bultzatzeko eta euskara normalizatzeko beharrezkoak baitira».

TOLOSA LANTZEN, S.A.

Lehiaketa

Tolosa Lantzen SAko Administrazio Kontseilua, 2006ko martxoaren 31n, Usabal Kiroldagiko Kiroi Medikuntza Zentroaren ustiapena lehiaketa irakurien bidez adjudikatzeko, baldintza administratibo partikularren agiria onartu zuen.

- 1.- **Helburua.**- Usabal Kiroldagiko Medikuntza Zentroaren ustiapen kontratuaren adjudikazioa.
- 2.- **Zenbateko enkantea.**- Hilean gutxieneko 500,00€ (BEZA kanpo).
- 3.- **Kontseiluaren iraupena.**- Urte baterako eta isilbidezko kontratu-berritzea beste lau urte gehiago.
- 4.- **Dokumentazioa.**- Tolosako Udaletxeko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzu bulegoa (Tolosa Lantzen, S.A.ren egoitza soziala)
- 5.- **Behin-behineko bermea.**- 1.800,00 €
- 6.- **Behin betiko bermea.**- Kontratuaren zenbatekoaren %4 €
- 7.- **Proposamenak aurkezteko lekua eta opeak.**- TOLOSA LANTZEN SAren egoitza: Tolosako plaza Zaharra 6-B. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hamabost egun kontatuta. Ordutegia: 09:00-13:00.
Epe hau larunbat, igande edo festa egunetan bukatzen bada, luzatu egingo da astelehena edo lehenengo lan eguna arte.
Proposamena korreoz bidaltzen bada, interesdunak egiaztatu egin beharko du, dagokion agiriarekin, posta-bulegotik zer egunetan bidali duen, eta Kontratazio-Organuari adierazi, egun horretan bertan, fax (943 69 75 02), telex edo telegrama bidez, proposamena bidali duela. Baldintza horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko.
- 8.- **Kartazalaz non eta noiz irekiko dira.**- Kartazalaz TOLOSA LANTZEN SAren egoitza sozialaren (Plaza Zaharra 6-B) irekiko dira, proposamenak aurkezteko epea bukatu eta laugarren egun baliadunearn.
- 9.- **Proposamenak egiteko eredu.**- Baldintza-agirian agertzen dena.

Tolosan, 2006ko apirilaren 11n
TOLOSA LANTZEN SAko lehendakaria
Sin.: Jokin Bildarratz Sorron

ARRAUNA ▶

TAKeko neskek Euskadiko Batel Txapelketa irabazi dute

Herenengun lortu zuten garaipena Sokoan, estropada «estu» baten ondoren; datorren asteburuan, berriz, Espainiako Txapelketan lehiatuko dira, Sestaon



Denboraldi bikaina burutzen ari dira TAKeko neskek. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) jubenil-senior mailako neskek Euskadiko Txapelketa irabazi zuten, herenegun, Sokoan (Donibane Lohizunen). Bizkaiko txapelduna, Portugaldeko San Nikolas, izan zen aurkaririk gogorrena. Eta oso lehia estua izan zuten TAKek eta bie. Estropada «zoragarria» izan zen, taldeko Aitor El-duaienek informatu duenaren arabera. Hiru zibogako lana, lau luze, eta aldiro elkarri bran-ka erakutsiz jardun zuten TAK-ek, San Nikolasek eta Ondarroak.

TAK beti aurretik izan zen: lehen zibogako Ondarroari se-

gundo bakarra, Isuntzari hiru eta San Nikolasi lau atera zizkion; bigarren zibogako, Ondarroari hiru segundo eta San Nikolasi lau; hirugarren zibogako, San Nikolasi hiru segundo eta Ondarroari, aldiz, bost. Azken luzea falta zenean San Nikolasek geroz eta hurbilago zen. «Presioa, tentsioa». Azken txanpa «ikusgarria» burutu zuten: TAKek eta San Nikolasek «nor baino nor» jardun zuten eta azkenean Tolosako batelak irabazi zuten. Segundorik ere ez, 82 ehuneneko aldea besterik ez zuten lortu TAKek amaieran. Txapelketa eta bandera etxera ekarri dute, beraz, «denboraldirik estropadarik politenean». Datorren asteburuan, berriz,

SAILKAPENA ▶
EUSKADIKO TXAPELKETA
Jubenil-senior neskek.

Taldea	Denbora
1. TAK	10.13:44
2. San Nikolas	00:82ra
3. Ondarroa	08:01ra

FEDERAZIO TXANDA
Jubenil mutilak.

1. TAK	09.28:80
2. Sanpedrotarra	00:23ra
3. Isuntza-Lekeitio	14:00ra

FEDERAZIO TXANDA
Infantil mutilak.

1. TAK	05.01:59
2. Isuntza-Lekeitio	02:54ra
3. Orio	06:54ra

ARALAR KIROLAK
TXAPELKETA
Infantil kadete neskek.

1. Aita Mari-Zumaia	05.14:72
2. Sanpedrotarra	01:99ra
4. TAK	11:43ra

Espainiako Txapelketa jokatu ahal izango dute, Sestaon. TAK eta San Nikolas izango dira, hain zuten, euskal ordezkariak. Bertan, kantabriarrak eta galiziarrek izango dira aurkari gogorrenak, «sekulako» maila duten batelak baitira.

TAKeko gazteak, bestalde, herenegun amaitu zuten batel denboraldia. Infantil-kadete mailako neskek laugarren egin zuten finala; lau batel aurkeztu ziren txapelketara, beraz,

zuzenean finala jokatu zuten. Infantil mutilak, berriz, Federazio Txapelketa irabazi zuten.

Trainerilla denboraldia

Jubenil mutilak, aldiz, Federazio Txapelketako estropada jokatu zuten, eta «oso denbora ona eginez» irabazi zuten, Sanpedrotarra batelarekin sekulako lehia eduki eta gero; 23 ehuneneko aldearekin amaitu zuten estropada, eta epaileek denborak eman arte ez zuten jakin irabazi zutenik. Haien denboraldi bikaina dela eta, Oriek eskaintza egin die trainerilla denboraldian haiekin aritzeko. Bi ontzi uretaratu nahi dituzte, bata Orioren izenean eta bestea Getariaren izenean, eta haietan titular izateko gogozen entrenatuko dute Haritz Izagirrek, Iñigo Jauregik, Eneko Martinek eta Jon Ander Agirrek, TAKeko arraunlariak.

Batel denboraldia amaitzeko zorian da, baina zaletuek izango dute arraunaz gozatzeko beta. Izan ere, trainerillena datorren asteburuan abiaraziko dute Mutrikun, non TAKeko mutilen senior ontzia ariko den lehian. Ordu asko eman dituzte Orion entrenatzen, errekan nahiz itsasoan, eta heldu zaie maila erakusteko garaia. TAK «etorkizunera begira» ari da lanean, eta horretarako ezinbesteko erreferentzia da nagusien mailan trainerilla honen parte-hartzea.

GIZARTEA ▶

Bihar, Igarondo elkartaren bilera Kultur Etxean

Igarondo Merkatarien Elkarteak deialdia egin nahi die bere kideei, bihar iluntzeko 20:15etik aurrera, Tolosako Kultur Etxeko bigarren solairuko gelan burutuko duten bilera joateko.

TXIRRINDULARITZA ▶

Tolosa C.F.ko Ana Usabiaga lehena, Espainiako Kopan

Tolosa C.F.ko Ana Usabiaga txirrindulari kadeteak lehen postua eskuratu zuen, pasaden asteburuan, Sevillan (Espainia) korritu zuen lasterketan. Garaipen honi esker, gainera, Espainiako Kopako lidergo lortu du Tolosa C.F.ko ordiziarrek.

HEZKUNTZA ▶

Bihar, ekitaldi informatiboa Laskorainen

Laskorain Ikastolako Batxilergoko eskaintza ezagutu nahi dutenek aukera izango dute, bihar, ikastolan bertan egingo den informazio ekitaldian, 17:00etan. Saio hau ikastola bertakoak ez diren gurasoei eta inguruko herrietakoek zuzendua dago. Bukaeran ikastola ezagutzeko aukera ere izango dute. Hainbat gai jorratuko dituzte, besteak beste: eskaintza akademikoa; tutore, ikasle eta gurasoen arteko harremanak; eskaintza ez akademikoa; euskara elkarrekin eta matrikulazio prozesua.

iragarki laburrak ▶


San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
 Tel.: 943 65 50 37
 Fax: 943 65 09 44
 e-maila: ernio@inmoernio.com
 www.inmoernio.com

Anoeta. Martxan dagoen tabernajatebea alokairuan. Informazio pertsonala.

Alegia. Taberna alokairuan. Informazio pertsonala.

Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu. Bista oso onak.

Amezketeta. Etxe abtikia salgai.

Belautza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

Hernalde. Etxe bifamiliarr ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.

Ibarra. Etxe adosatua salmantan. Oso egoera ona.

Ibarra. Garaje ibxi eta irekiak salgai.

Ibarra. 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Dena kanpoaldera.

Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

Ibarra. Euskalerria kalea. Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Berokuntzarekin.

Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.

Legorreta. Eraikuntza nahiko berria. 2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai. 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. Belate. 3 logela, sukaldia, egongela, bainugela. 264.450 euro.

Tolosa. Berazubi. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Guztiz kanpoaldera.

Tolosa. Zumalakarregi. 165m2-ko etxebizitza salgai. Trastelekuarekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m2. 2 eta 3 logela, sukaldia-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederra. Guztiz berriak. Estreinatzeko.

Tolosa. Araba etorbidea. 4 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, 25 m2-ko trasteleku eta garajea.

Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukaldia, egongela, bainugela. Trasteleku eta garaje ibxia.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m2ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Usabal. 2.000 m2-ko pabilioi industriala alokairuan.

Tolosa. Guadalupe. Pabilioia, 228 m2 beheko aldean eta 148 m2 goialdean. Prezio interesgarria!

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitza. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m2ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Zizurkil. Eraikuntza berriko 365 m2-ko pabilioia. 9 metrotako altuera. Kamioientzako sarrera, bulegoak, komunak, apartalekuarekin...

Zizurkil. Etxe abtikia salmantan oso egoera onean.

ADUNA ▶ HIRIGINTZA

Etxebizitza tasatuen zozketa aurki

Dagoeneko eraikitzen hasiak dira; maiatzaren 10ean zozketatuko dituzte

IMANOL GARCIA

Prezio tasatutako hamasei etxebizitza eraikitzen hasi dira dagoeneko Adunan, Amalkor kalean, Torre baserriaren atzealdean. Horien zozketa maiatzaren 10ean egingo dute, 19:00etan, kultur aretoan, notarioaren aurrean. Etxebizitzetan zozketan sartzeko izena eman zuten guztiak sartu dira eta ez da, beraz, alegaziorik egin horretarako zegoen epean. Etxebizitza hauek egitearen

helburua, Arantxa Aburuza alkateak azaldu duenez, «gazte jendeari eta orokorrean herri-tarrei lehen etxebizitza prezio duin batean izateko aukera ematea da». Hamasei etxebizitza horietatik hiru Udalaren esku daude, baina Udalak berak ez du baztertzen hiru horiek ere zozketan sartzea.

Lau zaku edo talde egin dituzte zozketarako. Lehenengo, 2001. urtea baino lehen Adunan erroldatuta eta egun altan daudenak edo hamar ur-



Etxebizitza eraikiko diren lursailean lanean, aurreko astean. I. GARCIA

tez gutxienez Adunan bizi izan direnak; bigarrena, 2005. urtea baino lehen Adunan erroldatuta daudenak; Andoain eta Tolosaldean erroldatuta daudenak; eta beste guztiak. Talde bakoitzean, hurrenez hurren, 15, 2,

63 eta 5 lagun daude izena emanda. Zaku bakoitzaren baitan zozketa egingo dute, eta zenbaki bat egokituko zaio parte-hartzaileei. Lehenengo zenbakia eskuratzen duenak izango du lehentasuna aukera-

tzeko. Gogoan izan behar da ere lehentasuna izango dutela lehen taldekoek, gero bigarregokoek, eta horrela jarraian laugarren taldera arte.

Udalak gogorarazi nahi du nahitaezkoa dela zozketan parte hartu behar dutenek bertan izatea, edo beraiek posible ez balute, norbait bere izenean bidaltzea, beti ere notarioak onartzeko beharrezkoak diren egiaztagiriekin. Udalak gomendatzen du zozketara joan aurretik parte-hartzaile bakoitzak etxebizitzaren aukeraketa egitea, zerrrenda bat osatuz. Izan ere, bere txanda egokitzen zaionean, parte-hartzaileak aukeratu gabe daudenen artean egin beharko du bere hautapena.

Etxebizitza bakoitzak bere garajea eta trastelekua du, eta bostek baita lursaila ere. Dagoeneko loteak eginda daude, hau da, etxebizitza bakoitzari egokitu zaion trasteleku eta garajea. Informazio gehiago nahi duenak, beti ere, Adunako udal-letxera jo dezake.

VILLABONA ▶ HIRIGINTZA

Flemingo etxebizitzaren zozketa-zerrrenda ikusgai

ERREDAKZIOA

Flemingo babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan parte hartuko dutenen zerrrenda ikusgai dago atzotik. Villabonako udaletxeko iragarki taulan dago, eta bertan izango da hamabost laneguneko epean nahi duenak zerrrenda ikusi eta edozein alegazio egin ahal izateko.

Alegazioak Villabona Lantzen, S.A. enpresari zuzenduta,

Villabonako udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko dituzte honako izenburu honekin: «Flemingo 20 BOEn zozketa».

Ondoren, Villabona Lantzen, S.A. enpresako Administrazio Kontseiluak alegazio horien inguruko erabakia hartuko du. Behin betiko zerrrenda jenduraren jarriko dute eta, eguna zehaztu eta gero, zozketa publiko notarioaren aurrean egingo dute.

ADUNA ▶

Obrak egiteko baimena eskatu behar zaio Udalari

Adunako Udalak bandoa zabaldu berri du. Herrian obrak egiteari buruzko informazioa, hain zuzen ere. Horrela, Udalak jakinarazi duenez, etxean edota lursailean edozein obra egiteko edo edozein eranskin jartzeko, aurretik udaletxean baimena eskatzea beharrezkoa da. Hori egin ezean, isunak eta beharrezko neurriak hartuko dituela azaldu du Udalak.

VILLABONA ▶

Zenbait tasa ordaintzeko diru laguntzak

Autengo uraren hornidura eta zabor bilketa zerbitzuaren tasa ordaintzeko diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Villabonako Udalak maiatzaren 12a arte. Oinarrizko errenta eskuratzeko gehieneko zenbatekoa ez gaintzea eskatzen da. Eskuerak Gizarte Ongizate bulegoan aurkeztu behar dira —aurretik ordua hartzeko 943 69 39 25ra deitu—.

ULERTZEKO Garai Berria

berria²

AHT ▶

Hainbat kontzentrazioetara deitu dute eskualdean

AHT Gelditu! Elkarlanak antolatu ditu aste honetan, Euskal Y proiektuaren obrak hasteko hitzarmena salatuz eta 'Herriz herri antolatu eta erantzun' lelopean



AHT Gelditu! Elkarlanekoak, Tolosako epaitegiaren aurrean protesta egin zutenean. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Abiadura Handiko Trenari oposizioa erakusten dion Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak gogor salatu du Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Euskal Y izeneko

proiektuaren obrak hasteko izenpetu duten hitzarmena, eta erakundeen «prepotentzia» gertakizun «larriaren» aurrean, mobilizatzeko deialdi berezia egin diete herritarrei.

Hortaz, datozen egunotan AHT gelditu! Inposaketarik ez!

Herriz herri antolatu eta erantzun! lelopean egingo dituzten mobilizazio, kontzentrazio eta batzarretan parte hartzeko deia egiten dute, «AHTaren inposaketak jendartearen eragiten duen desadostasuna adierazteko, eta ingurumenari, ekono-

miari, lurralde orekari, eta, ondorioz, gizarteari, hainbeste kalte ekarriko liokeen egitasmoa geldiaraztearen herri mugimendua hedatzeko».

Salaketaren arrazoiak

«Gogor» salatzen dute Garraio Sailak eta Espainiako Sustapen Ministerioak protokolo honekin eta AHTren eraikuntza hasteko Araban esleitu diren lanekin «urrats larria» eman dutela AHTaren proiektua «inposatzeko». «AHTren auzian gizartearen ematen ari den eztabaidari eta egitasmoa gelditze-ko planteatu diren arrazoizko eskaerei bizkar emanda, gatazka hau irtenbiderik gabeko zulo batera daramate», AHT Gelditu! Elkarlaneko kideen ustez.

AHTaren gaia dela eta, «oposizio eta sentsibilizazio adierazpenak eman ditu herriak, egundoko eragina lukeen egitasmo hori gelditzea eskatzeko eta informazio, eztabaida eta erabaki prozesu parte-hartzaileak abian jar daitezkeen aldarrikatzeko. Eskakizun guztiei entzungor eginez, ordea, protokolo honekin AHTaren obraren negozioa PNV eta PSOEren inguruan dabilzan eraikuntza-entzuzko artean banatzeko lotsarik ez dute».

Elkarlanekoek hitzetan, «jukutria honek argi erakusten du 1.600 milioi euroko aurrekon-

KONTZENTRAZIOAK ▶

Tolosa. Larunbatean, Trianguloan, 12:00etan.

Alegia. Etzi, ostegunean, 19:30ean, Tonto kalean.

Anoeta. Bihar, 19:30ean, herriko plazan.

Zizurkil. Etzi, ostegunean, 19:30ean, Joxe Arregi plazan. Deialdi honetara Villabonako eta Aiztondoko herrietakoak bilduko dira.

tua duten Gipuzkoako zatien kudeaketa bere eskuetan hartzeko, Eusko Jaurlaritzak agertu duen arduraren arrazoiak zein izaerakoa den: interes partidistak nahastu dira, AHTaren administrazioek ehunka milioi euro xahutuko dituzte, baliabide publikoak hipotekatzeko arriskuan jarri, bestalde».

«AHTren (negozioa Espainiako Gobernuak eta erakunde autonomikoetako agintari-tek-nokratek adostu duten operazio politiko bateko gaia da», gaineratu dute. Euskal Herriak bere estatutu politikoa libreaki hautatzeko aukerak eta egungo gizarte ereduak eraldatzeko aldarrikapenak «motzean» lotu nahi ditu, haien iritziz: «Panorama era beldurgarrian argitu da, beraz, agintari nafarrek, espainolek eta baskongadoek egin dituzten mugimenduekin AHT inposa dezakete, inpunitareri zabalenean».

Abiadura Handiko Trenaren aurkako oposizioa azkartzeko eta egitasmo «anti-ekologiko» eta «anti-sozial horren inposizioaren» kontrako herri mugimendua beharrezko ikusten dute, hala, AHT Gelditu! Elkarlanekoek, «datorren abagunean» herri eta erakunde guztietan egungo garraio eta gizarte ereduak «kolokan edo eztabaidagai jartzeko».

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak moztzeko eskubidea du

AHTri ez: antolatu eta erantzun!

443 kilometro inguru AHT Euskal Herrian. Txikizioa naturan. Herritar xehearen bizi-baldintzak txarrera. Jauntxoak aurrea. Ekonomian, lurraldearen orekan, nekazaritzan, naturan... kalte handiak.

Honelako proiektu erraldoia eta hainbeste ondorio eragin- go lituzkeen AHT egitasmoaren inguruan herritarrek ez al dute erabakitze eskubiderik?

6.000 milioi euro baino gehiago xahutuko dira EAEn: guztion dirua. Elite politiko eta ekonomikoaren negoziorako. Energia, porlana, harrobi, eraikuntza... eta garraioko enpresari- etekinak handitzeko, bide batez, baita alderdi politiko batzuenak ere. Populazio osoarentzat kalitatezko garraio publikoa finantzatu eta beste behar asko ase daitezkeenean.

Bidaia-txartela ordaindu ahal izango duten hiriburuetako gutxi batzuen erabilerarako.

AHTak trenaren itxura du, baina hegazkinarekin dago lehian (distantzietan, geldialdietan, energia gastuetan...). Hiriburuak lotuko ditu soilik. Ez ditu garraio arazoak konponduko, eskualde barruko joan-etorriak populazioaren eguneroko desplazamenduen %97 direlako eta bideetatik kamioiak ez dituelako gutxituko.

AHTaren egitasmoak, lehen- dik datorren bide okerrean gero eta gehiago sakontzea eta garapen jasangarria izan daitekeen horretatik, gero eta gehiago urruntzea dakar.

AHT bezalako makroproiektu jasanezinak ezaugarritzen duten egungo eredu kapitalistaren aurka. Mundu berri baten alde. Bestelako ekonomia, garapen eredu baten alde. Jendartearen eraldaketa sozialistaren alde gaude.

Egoera larria da, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak obrak hasteko izenpetu duten hitzarmena kontuan hartuta. Herritar guztiei mobilizatzeko deia egiten diegu. AHT gelditzearen helburua lortzea posible da. Frantziako Estatuan CPE edo Lehen Lan Kontratuaren aurka egunotan eman den ikasleen eta langileen mugimendu zoragarriaren garaipenak erakutsi digu zein den bidea. Goazen orain, inoiz baino gehiago indarrak bilduta, AHTaren proiektua gelditzeko borrokan era aktiboan inplikatzera. Guztion parte hartzea beharrezkoa da.

AHT gelditu! Inposaketarik ez! Herriz herri antolatu eta erantzun!

MANU ODRIOZOLA ETA MIKEL MUGERZA ▶ AHT GELDITU! ELKARLANEKO KIDEAK

OREXA ▶ EZBEHARRAK

Lagun bat hil eta beste hiru zauritu dira auto istripuan

Elizkizuna amaitzean, ermitatik irteten ari zirela jazo zen; autoko gidaria korderik gabe geratu izana, hipotesien artean

IÑIGO TERRADILLOS

Lagun bat hil eta beste hiruk maila ezberdineko zauriak izan zituzten herenegun arratsaldean Orexan izandako auto-istripu batean.

Ezbeharra arratsaldeko lehenengo orduan, ordubata inguruan jazo zen, Orexako plaza-tatik kilometro batera dagoen Intxaurre auzoan, San Martin ermitaren kanpoaldean. Une horretan, jende ugari zegoen

biliduta ermitan, herriko bikote baten urrezko etzeiak ospatzen ari baitziren. Elizkizuna amaitu ostean gertatu zen istripua. Donostiako matrikuladun Nissan Patrol batek hiru lagun harripatu zituen eta, ondoren, lubeta batetik erori zen, horma baten aurka talka eginez.

Ezbeharraren ondorioz, emakume bat (P. V. N.) hil egin zen eta beste hiruk maila ezberdinetako zauriak izan zituzten, horien artean, autoko gi-

dariak. Hiru zaurituak ospitalera eraman zituzten; M. B. M. 66 urteko Donostiako bizilaguna eta F. B. M. 73 urteko Usurbilgo bizilaguna Donostia ospitalera eraman zituzten egoera larrian. M. B. M. istripuan hildako emakumearen senarrak igande arratsaldean bertan jaso zuen alta. Hirugarren zauritua, A. M. A. E. Tolosako Asunzio Klinikara eraman zuten zauri arinekin.

Teknikariak emakumearen

heriotza baieztatu eta beharreak izapideak bukatzerakoan, gorpua Donostiako Auzitegiko Patologiako Zerbitzuetara eraman zuten bertan autopsia egin zezaten. Bitartean, Ertzaintza atestaturako izapideak egiten hasi zen, ezbeharra zerik eragin zuen argitu aldera.

Herritarrak hunkiturik

Ezbeharrak eraginda erabat hunkiturik geratu ziren herritarrak; azaldu zutenaren arabera, orduantxe amaitu zen elizkizuna, eta ermitatik irteten ari ziren, beraz, «segundo batzuk lehenago gertatuz gero ez zen halakorik jazoko». «Hain azkarra izan zen dena ez baitzen ezer egiterik izan», zioten. Bestalde, ermitaren gainaldean dagoen Pagadi Eguzkitza baserriatik behera zetorren Nissan Patrol ibilgailuko gidaria korderik gabe geratu izana, edota autoko balazteak huts egin izana dira istripua gertatu izanaren hipotesi nagusiak.

IBARRA ▶

Eider Ijurkoren urtebetetzeko argazkia, gaur

Eider Ijurko Ibarako preso politikoak etzi beteko ditu 25 urte, eta hori dela-eta gaur argazkia aterako dute Ibarako Kultur Etxearen kanpoaldean, 19:30ean.

IBARRA ▶

Odola eman zuten herritarrak eskertu dituzte

Ibarako Odol-Emaileen elkarteak odola eman zuten herritar guztiak eskertu nahi ditu. Azken hitzorduan, 2 herritar berrik eman zuten odola, eta hurrengoan gazteria ere anima dadila eskatzen dute. Bestetik, egun horretarako janari aldetik emandako laguntza eskertu nahi izan diete ondorengo herriko dendei: Joaquin harategia, Joxe Mari Barriola harategia, Autoservicio Arantxa eta Erre-Berri, hain zuzen ere.

IBARRA ▶ KULTURA

Bisita bereziak Liburuaren Eguna dela-eta

I. Terradillos ▶ Herenegun izan zen Liburuaren Eguna, eta hori dela eta, atzo, Aste Santuko oporraldia bukatu ostean, bisita berezia jaso zuten Ibarako Uzturpe ikastolako ikasleek, bi idazlerena, alegia. Hain zuzen ere, Patziku Perurenarekin izan ziren DBHko ikasleak, eta Joxean Ormazabalarekin LHkoak. Atzokoaz gain, ostiralean, hilaren 28an, liburuaren irakurketa-ekin zerikusia duten hainbat ekitaldi ere antolatuta dituzte Uzturpe ikastolako gaztetxoei zuzenduak. HITZA



iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Aduna. Bifamiliarra salgai. 150 m² eta 60 m²-ko garajea. Kapribox egoniko erreforma. Material ezin hobekak. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Amezketak. Etxea abiklia salgai. Eraiki berria. Informa zaitez! Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Etxebizitza altua, igogailuarekin salgai. Egongela, sukaldia, 2 logela eta bainugela. Erabat berritua. Zonalde oso onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. Egongela, sukaldia, 3 logela eta komunaz osatutako pisu ederra. Ezin hobea. 42.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

Andoain. Egongela, sukaldia, 3 logela eta bainugela. Bizitzera Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. Dena kanpoaldera. 249.000 euro. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Legorreta, Berrobi eta Albiztur. Egoera oneko baserriak, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 59 m² erabilgarri dituen apartamentu polita. Berritua. Gazteentzako aproposa. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldia, 3 logela eta bainugela. Egoera onean. Oso eguzkitsua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. 4 urteko Seat Toledo TDla. 53.000 kilometro. Urtebeteko garantiarekin. Interesatuak deitu 943 11 77 59 zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. «AHTren lanak hasteko akordioa sinatu dute Madrilek eta Lakuak. Egitasmo honen aldeko al zara?». Eman zure botoa! ▶

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi goitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ XXVIII. HERRI KROSA

Maritxalar eta Melero atera dira garaile 28. herri lasterketan

425 lasterkarik parte-hartu dute, iaz baino ia 200 lagun gehiagok, eguraldi bikainari zor; ez dute markarik ondu

JAIONE ASTIBIA

Igandean egin zuten Leitzako herri krosean, maila nagusian, Rafa Maritxalar lesakarra eta Maitane Melero iruindarra jabetu ziren lehendabiziko lekuez; batetik 32 minutu eta 20 segundo eta bestetik 18 minutu justuak behar izan zituzten hurrenez hurren, bakoitzak bere lanak egiteko, alegia, gizonzkoetan 10 kilometro eta emakumezkoetan 5 kilometro.

425 lasterkarirekin, lasterketa polita ikusi zen herenegun goiz partean Leitzan. Eguraldia ere halakoa izanik, zaletu asko bildu zen ibilbide osoan zehar eta giro beroa eta animo-oihuak non-nahi entzun zituzten emanean zebiltzanek. Aita-tzekoa da, ordea, aurtengo edizioan ere ez dutela bere garaian Andres Perezek ezarritako marka hobetzerik lortu, 29.49koa. Eta sari hori banatzeko gelditu dela beste behin.

Hiru taldetan ekin zioten lanari parte-hartzaileek. Benjaminak izan ziren goiztiarrenak. 800 metroko ibilbidea egin behar izan zuten, herrigunean bertatik pasatzen zena. Guraso eta lagunek lagunduta egin zuten tikienek beren lana. Ondoren, albinen eta infantilen txanda etorri zen; azken hauetan, mutikoei 5 kilometro egin zituzten bitartean, neskatuei 2,5 kilometro, hots, zirkuituko bira bat, egin zuten.

Maila hauetan guztietan, eta baita kadeetakoan ere, parte-hartzaileen artean ez ezik podiumeko postuetan ere herriko



Emakumezkoen podiuma, ezkerretik: Hermandorena, Labaien (5.a), Muñoz (4.a), Abrego (2.a), Melero (1.goa) eta Talavera (3.a). J. ASTIBIA



Gizonzkoen podiuma, ezkerretik: Arraztio (5.a), Amatriain (4.a), Martínez (2.a), Irazoki leitzarra, Maritxalar (1.goa), Primo (3.a). J. A.

ordezkaritza nabarmena izan zen, zazpi lasterkarik beren sariak eskuratu baitzituzten.

Lasterketa nagusian kadete, junior, senior eta beteterano mailetako lasterkariak atera ziren. Batzuk taldeka ere egin zuten, «48 minututik baietz jaitsi» apustua egin; bi taldek

eskuratu zuten saria. Maila bakoitzean, aurreneko leitzarrak ere bere garaikurra jaso zuten.

Herri krosaren antolatzaile den Aurrera Kirol Elkarteak, bere aldetik, eskertu nahi izan zituen «laguntza eman duten herriko 91 denda, enpresa tiiki eta zerbitzu», balorazioa egite-

SAILKAPENA ▶

SENIORRAK

Gizonzkoak.

1. Rafa Maritxalar	0.32.20
2. Andres Martinez	-
3. Oskar Primo	0.33.38
13. Fernando Irazoki	0.37.04

Emakumezkoak.

1. Maitane Melero	0.18.00
2. Nerea Abrego	0.18.15
3. Rosi Talevera	0.18.37
9. Garbifé Hermandorena	0.23.45

BETERANOAK

Gizonzkoak.

1. Juan Razkin	-
2. Marino Mateos	-
3. Oskar Aiape	-
10. Angeru Mingedia	-

Emakumezkoak.

1. Arantxa Aldalur	-
2. Nekane Menendez	-
3. Susana Goikoetxea	-
- Josune Marzol	-

JUNIORRAK

Gizonzkoak.

1. Adur Juaristi	-
2. Iñaki Satrustegi	-

KADETEAK

Gizonzkoak.

1. Urko Berdud	-
2. Julen Sagastibetza	-
3. Martin Eslaba	-

Emakumezkoak.

-	-
---	---

1. Argia Abrego	-
2. Agurtzane Erdozia	-
3. Sara Martinez	-

INFANTILAK

Gizonzkoak.

1. Unai Arroyo	-
2. Ander Ortiz	-
3. Beñat Salbarredi	-
- Jokin Banzis	-

Emakumezkoak.

1. Miren Jantorena	-
2. Irati Serranito	-
3. Jugatz Juaristi	-

ALEBINAK

Gizonzkoak.

1. Alexander Irurtzun	-
2. Kepa Eizagirre	-
3. Mikel Malkinga	-
- Markel Barriola	-

Emakumezkoak.

1. Ane Inbausti	-
2. Andrea Usarreta	-
3. Itxaso Odriozola	-

BENJAMINAK

Gizonzkoak.

1. Aitor Sanmartin	-
2. Marbel Inbausti	-
3. Aitor Artola	-

Emakumezkoak.

1. Garazi Obxandorena	-
2. Amaia Ezkurdia	-
3. Mirian Iriarte	-



Lagun arteko apustuak tarteko, norgehiagoka biziak ikusi ziren. J. A.

rakoan. Bestalde, lasterketako denboren martxa eramateko epaileak kontratu zituzten, baina ez zirela oso konforme

hauek egindako lanarekin, honen froga dateke, igandeko eta herrikoia.com-en emandako sailkapenak bat ez etortzea.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Juana Otegi Zubelzu

andrea (Santiago Iturberen alarguna)

Atzo hil zen, 78 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Bere semeak: Eugenio eta Jesus Maria; ahizpak: Joakina (Jose Agirrerren alarguna) eta Angela; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzetzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko BOSTETAN, Albizturko ANDRE MARIAREN ZERURATZEA parroki elizan, GORPUBA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

ALBIZTUR, 2006ko apirilaren 25a

helbidea ▶ Olatza baserria
oharra ▶ Gorputz bella Tolosako Funeraria Vascongada Beilatokian dago

hilberria ▶

Josetxo
Urdanpilleta Goenaga

Mendi magalean,
ardi artean
zure irribarrea
izango dugu gogoan

Muxu handi bat

Zure ilobak



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko apirilaren 25a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Herritarrek egiten dituzten eskulanekin erakusketa antolatu nahi du Udalak festetan. Lanak erakutsi nahi dituztenak bilerara deitu ditu gaur, 18:00etan, udaletxean.
Ibarra. Eider Ijurko Ibarra preso politikoak etzi beteko ditu 25 urte. Hori dela-eta gaur argazkia aterako dute Kultur Etxearen kanpoaldean, 19:30ean.
Tolosaldea-Leitzalde. Gaztetxe Martxa: 08:00etan iritsiko da Leitzara, eta 18:30etik aurrera zeharkatuko du Tolosaldea (San Blas-Ibarra-Tolosa-Anoeta-Villabona-Zizurkil).

HITZALDIAK

Tolosa. *Hiria eta lurraldea* mahai-ingurua. Hizlariak: Kike Amonarriz, Andoni Egaña, Santi Eraso eta Mikel Iriondo. Aurkezlea: Irene Larraza. 20:00etan, Kultur Etxean. Naturgintza Jardunaldietan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitza-ren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBH 1 eta 2ko ikasleek prestatzen duten saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street noise*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGAZKI LEHIAKETA ▶

MENORCA ▶

Maria Provanza Iturrioz (Tolosa).

Balear Uharteetara egin du bidaia Maria Provanza tolosarrak Aste Santuko oporraldi honetan. Hala dio jasotako irudi honi buruz: «Argazki hau, Menorca-n, Cala 'n Blanes-eko Los Ventiscos izenekoan ateratakoa da. Bertara joan ginen eguzkia nola izkututzen zen ikustera. Benetan zoragarria izan zen».



SAHARA ▶

Kepa Goikoetxea (Tolosa).

«Argelian Tindufeko desertuan saharar errefuxiatuen kanpamentuetan ateratako argazkia da hauxe, Aste Santuan ateratakoa. Bertako gure familiako bi txikiak dira ikus daitezkeenak, Mohamed eta Fatma».

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea

hitza
argazki lehiaketa

bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan

Bidaia Agentzia bidaide

Ernioeoa, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercom.com

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE
guztien artean HITZAren motila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira